



# kritiken hemeroteka

6.705 kritika

Honi buruz

Bilaketa

Hasiera

## Azken kritikak

- **Bitakora kaiera**  
**Ibon Sarasola**  
*Mikel Ayerbe*
- **Trilogia hiperlaburra**  
**Karlos Linazasoro**  
*Hasier Rekondo*
- **Hitz Margotuak**  
**Karlos Aretxabaleta / Mikel Manso**  
*Igor Estankona*
- **Hamaika euskal literato eta Jainkoa**  
**Sebastian Gartzia Trujillo**  
*Javier Rojo*
- **Franco hil zuten egunak**  
**Koldo Izagirre**  
*Alex Gurrutxaga*
- **Urtemuga lehorraren kronika**  
**Itxaro Borda**  
*Aritz Galarraga*
- **Franco hil zuten egunak**  
**Koldo Izagirre**  
*Ibon Egaña*
- **Elkarrekin esnatzeko ordua**  
**Kirmen Uribe**  
*Iratxe Esparza*
- **Isil-mandataria**  
**Jean Echenoz**  
*Javier Rojo*
- **Ahantzterriko kop(I)ak**  
**Luigi Anselmi**

« [Gure akademia ustela](#) | [Zu eta biok](#) »

## Ezpainak arrainak bezala / **Karlos Gorrindo** / Erein, 2015

Ezpainak arrainak bezala → Igor Elordui / *Aizu!*, 2016-02

Zer gura duzue esatea, beharrezkoak ditu euskal literaturak Karlos Gorrindoren eleberri honen modukoak. Arrandia barik idatzita gure egunerokoari buruz, hots, ezagunak egiten zaizkigun gauzen gainean: bikote harremana, familia, gaixotasuna, lana, orain-tsura arteko egoera politikoa... Arteza. Ulergarria. Arina. Zentzurik zabalenean arina. Aldekoenean.

Eleberriko protagonista Gorka da. Martarekin ezkondata dago. Maite du, baina jada ez daki Martak beragatik gauza bera sentitzen ote duen. Denbora guztian dauka Gorkak buruan emaztea, baina hark, berarekin baino, Idoia lagun minarekin pasatzen du denbora gehiago.

Gorka seme bakarra da. Gurasoak, aita jubilatutako zenetik, baserrian bizi dira eta, aspaldian, apenas egiten die bisitarik. Ama kezkatuta dago, senarra ez baitabil lar ondo azken boladan.

Kazetaria da Gorka. Roberto Gorosabel eskultoreari elkarrizketa egin behar dio. Hasieran lanari gogo barik helduko badio ere, apurka-apurka, Gorosabelen lanak, haren hitzak eta haren bizitzak harrapatu egingo dute. Ederki harrapatu ere, izan ere, elkarrizketa erreportaje bihurtu eta eskultoreari Madrilerako erakusketa batera lagunduko dio. Madrilerako bidaian, baina, ustekabeko galanta hartuko du. Irakurleak ez du txikiagoa hartuko. Puntu horretatik aurrera, abiadura hartuko du kontakizunak, eta esaldi laburrak eta ezustekoak (agian ez hain ezustekoak) baliatuz joango da idazlea korapiloak askatzen.

## Artxiboa

- Urtarrila 2017
- Abendua 2016
- Azaroa 2016
- Urria 2016
- Iraila 2016
- Abuztua 2016
- Uztaila 2016
- Ekaina 2016
- Maiatza 2016
- Apirila 2016
- Martxoa 2016
- Otsaila 2016

Aurreko urteak ▼

## Hedabideak

- Argia (850)
- Berria (848)
- El Diario Vasco (807)
- El Correo (733)
- Gara (548)
- Egunkaria (505)
- Deia (357)

Hasier Rekondo

→ **Franco hil zuten egunak**  
**Koldo Izagirre**  
*Javier Rojo*

→ **Elkarrekin esnatzeko ordua**  
**Kirmen Uribe**  
*Alex Gurrutxaga*

→ **Elkarrekin esnatzeko ordua**  
**Kirmen Uribe**  
*Hasier Rekondo*

→ **Lo zaudela zabaldu**  
**dizkizut begiak**  
**Mikel Etxaburu**  
*Iker Zaldia*



→ El País (151)

→ Aizu! (143)

→ Irunero (122)

→ Zeruko Argia (97)

→ Egin (77)

→ Hegats (62)

→ Besterik (1404)